Euskal Herriko Ahotsak

ahotsak.com

Txomin Erauskin Garmendia

Lasarte-Oria, Gipuzkoa (1943)



Aurkibidea

Biografia



Lasarte-Oriako Zabaleta baserrian jaio zen Txomin, garai batean Hernaniri zegozkion lursailetan. Baserriak berak ematen zion auzoari Zabaleta izena, eta bertan bizi ziren guraso biak, arreba gazteagoa eta Txomin. Aita bertakoa zuen, ama, ordea, Asteasukoa. Baserritik bizi zen familia; aita, gainera, txerri-hiltzailea zen. Herriko eskolan ikasi zuen lehenengo, eta Donostiako Nuestra Señora del Pilar eskola pribatuan ondoren. Azken honetan bulego lanetarako prestatzen zituzten ikasleak, eta horri esker, baserritik kanporako lanetan aritu da, hala nola, Banco San Sebastianen, eta Kutxan gerora. Azken honetatik hartu zuen erretiroa. Kutxan lanean ari zela gertatutako hamaika anekdota kontatu dizkigu, baita sagardogintzari eta Zabaleta auzoari buruzkoak ere.

Zintak

LAS-021

- **Proiektua**: Lasarte-Oriako Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Lizeaga, Irati
- **Data**: 2019-09-11
- **Iraupena**: 115 min
- **Euskarria**: Bideo digitala
- **Kodifikatzailea**: Lizeaga, Irati

Pasarteak

1. Auzo bakoitzak bere zinegotzia

- **Erref**: LAS-021/002
- **Iraupena**: 0:02:35. **Hasi**: 00:01:23. **Bukatu**: 00:03:58
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Herri-lurrak eta lur pribatuak
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Inguruko herriak eta auzoak

Laburpena:
Zabaleta baerrian jaio zen Txomin, baita bere arreba ere. Baserritar auzoa zen Zabaleta, eta elkar ezagutzen zuten denek. Eskola urruti gelditzen zen auzotik. Hernaniri zegokion auzoa Lasarte-Oria sortu baino lehen.

2. Zabaleta baserriak ematen zion auzoari izena

- **Erref**: LAS-021/004
- **Iraupena**: 0:01:28. **Hasi**: 00:06:11. **Bukatu**: 00:07:39
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Inguruko herriak eta auzoak

Laburpena:
Zabaleta baserrikoa zen Txomin, eta baserriak berak ematen zion izena auzoari. Denborarekin, auzoa handitu eta handitu egin zen. Larrekoetxe bidea jarri zioten inguruari, Larrekoetxe baserriagatik.

3. Banketxeko eta baserriko lana uztartzea onena

- **Erref**: LAS-021/006
- **Iraupena**: 0:02:37. **Hasi**: 00:08:53. **Bukatu**: 00:11:30
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Banketxeak
- Baserria » Baserriko lanak

Laburpena:
Zuaznabar, bizilaguna, Michelingo arduradunetako bat zen eta lana eskaini zion Txomini. Baserriarekin jarraitzeko asmotan ezetz esan zion. Aitak, ordea, soldata eta ordutegia baserrikoa baino hobea zela eta Banco San Sebastianen lana hartzera bultzatu zuen Txomin.

4. Kutxa banketxeko txofer

- **Erref**: LAS-021/007
- **Iraupena**: 0:00:58. **Hasi**: 00:11:30. **Bukatu**: 00:12:28
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Banketxeak

Laburpena:
Banco San Sebastianen lau urte egin eta Kutxako txofer lanetan aritzeko oposaketak gainditu zituen. 34 urtez aritu zen Kutxan, eta handik hartu zuen erretiroa.

5. Zabaleta auzoan etxebizitza mordoa

- **Erref**: LAS-021/008
- **Iraupena**: 0:02:10. **Hasi**: 00:12:28. **Bukatu**: 00:14:38
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Inguruko herriak eta auzoak

Laburpena:
Zabaleta auzoko lursailak erosi nahi zituzten etxeak eraikitzeko. Saldu ezean etxerik gabe geldituko zela eta, bihotzeko bat izan zuen Txominek.

6. Baserritik kanpo lan egiteko erabakia

- **Erref**: LAS-021/010
- **Iraupena**: 0:02:00. **Hasi**: 00:18:20. **Bukatu**: 00:20:20
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Donostialdeko lantegiak
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Baserria vs. Kalea

Laburpena:
Goizez lan egin eta arratsaldez eskolak jasotzera joaten zen, oposaketak gainditu ahal izateko. Lursailak alokatu egin zituen.

7. Dena auzolanean egiten zen

- **Erref**: LAS-021/012
- **Iraupena**: 0:00:50. **Hasi**: 00:22:53. **Bukatu**: 00:23:43
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Auzokoen arteko harremana

Laburpena:
Denek laguntzen zioten elkarri, lanean, bideak egiten, ezustekoetan…

8. Arratsaldez Donostiako eskolara

- **Erref**: LAS-021/013
- **Iraupena**: 0:01:52. **Hasi**: 00:23:43. **Bukatu**: 00:25:35
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskolara herritik kanpo
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskolaz aparteko ikasketak

Laburpena:
Hernaniko lursailetan bizi zirenentzat aurreskola zegoen lehenik sei urteak arte. Ondoren Toledoko maisuarekin egoten ziren 14 urteak arte. Hala ere, 12 urterekin Donostiako eskola pribatu batera joan zen Txomin, Nuestra señora del Pilar izenekoa.

9. Don Eugenio Goyaren ikasle

- **Erref**: LAS-021/014

- **Iraupena**: 0:02:10. **Hasi**: 00:25:35. **Bukatu**: 00:27:45
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskolara herritik kanpo
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskolaz aparteko ikasketak

Laburpena:
La Salle eskolako Don Eugenio Goyari buruzkoak. Asko ikasi zuen bertan, lan mundurako oso ongi prestatu zuten.

10. Eskola pribatua soldadutzaren pare

- **Erref**: LAS-021/016
- **Iraupena**: 0:01:44. **Hasi**: 00:28:53. **Bukatu**: 00:30:37
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Soldadutza
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskolaz aparteko ikasketak

Laburpena:
Hernaniko eskolaz gain, La Sallen aritu en Txomin ikasten, arratsaldez. Han lan mundurako prestatzen zituzten mutikoak. Eskolatik atera eta baserriko lanak amaitzean egiten zituen etxerako lanak.

11. Autobus gidariek ezagutzen zuten

- **Erref**: LAS-021/018
- **Iraupena**: 0:02:38. **Hasi**: 00:34:15. **Bukatu**: 00:36:53
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Garraioak » Autobusak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskolaz aparteko ikasketak

Laburpena:
Goizetan Donostiara joaten zen amarekin esnea saltzera. Arratsaldez La Sallera joaten zen ikastera, eta etxera itzultzeko autobusaren atzetik ibiltzen zen askotan. Oporrak Donostian.

12. Errota zuten baserrian

- **Erref**: LAS-021/020
- **Iraupena**: 0:01:53. **Hasi**: 00:37:14. **Bukatu**: 00:39:07
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Garia
- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- Baserria » Baserriko lanak » Errota

Laburpena:
Garai batean garia ereiten zuten baserrian bertan, eta ogia egiten zuten

egunero. Errota ere etxean bertan zuten. Donostiara ikastera joatean konturatu zen Txomin Donostiako ogia eta etxekoa ez zirela berdinak.

13. Sidi Ifnin soldadu

- **Erref**: LAS-021/021
- **Iraupena**: 0:03:21. **Hasi**: 00:39:07. **Bukatu**: 00:42:28
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Soldadutza

Laburpena:
Soldadutza Afrikan egitea egokitu zitzaion Txomini, Sidi Ifnin hain zuzen.

14. Soldadutzan irakasle gisa

- **Erref**: LAS-021/022
- **Iraupena**: 0:02:58. **Hasi**: 00:42:28. **Bukatu**: 00:45:26
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Soldadutza

Laburpena:
Idazten eta irakurtzen ez zekitenei eskolak ematen jardun zuen Txominek soldadu zegoela, izan ere, Txominek aurretiaz formakuntza bazuen eta azterketa egin gabe izendatu zuten arduradun.

15. Etxean euskara, eskolan erdara

- **Erref**: LAS-021/024
- **Iraupena**: 0:02:31. **Hasi**: 00:47:52. **Bukatu**: 00:50:23
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera
- Euskara » Tratamenduak

Laburpena:
Toki askotako jendea zegoen soldadu, baina euskaldunak batu eta euskaraz egiten zuten. Eskolan dena gaztelaniaz ikasi zuen Txominek eta hori abantaila bat ere izan da aurrera begira. Tratamenduen erabilera ere aldatu da.

16. Trenez Sevillara, eta handik Sidi Ifnira

- **Erref**: LAS-021/025
- **Iraupena**: 0:02:43. **Hasi**: 00:50:23. **Bukatu**: 00:53:06
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Soldadutza

Laburpena:
Sidi Ifnin ez zegoen egiteko ezer. Behin bero izugarria izan zuten, 45 gradu

itzaletan. Haizea zela eta ezin izan zuten jan egun hartan, hondarra janarira itsasten baitzen. Aitortza bat egin zioten Txomini haren postua hain ondo betetzeagatik.

17. Euskara baserrietan zegoen

- **Erref**: LAS-021/027
- **Iraupena**: 0:01:37. **Hasi**: 00:53:32. **Bukatu**: 00:55:09
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:
Kaletar gehienak euskaldunak baziren ere, erdaraz hitz egiten zuten, eta euskaraz egiten zuenari 'casero' deitzen zitzaion.

18. Maisuak etengabe 'Espainia' ahotan

- **Erref**: LAS-021/029
- **Iraupena**: 0:02:23. **Hasi**: 00:55:44. **Bukatu**: 00:58:07
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskolaz aparteko ikasketak

Laburpena:
Txominek ez du ezagutu euskaraz egiteagatik zigorra gasotzea, baina bai haren aitak. Oso eskuindarra zen haien maisua, Toledokoa. Hiru aldiz ezkondu zen eta errekreoan eta egurdian eskulanak egiten zituen, haiekin dirua ateratzeko.

19. Neskamea amaren modukoa

- **Erref**: LAS-021/032
- **Iraupena**: 0:01:41. **Hasi**: 00:58:42. **Bukatu**: 01:00:23
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Neskameak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:
Baserritik bizi zen familia. Neskamea zuten etxean, etxeko gauzekin eta umeekin laguntzeko. Familiako beste baten moduan bizi zen bertan.

20. Baserrien administrazioa emakumearena

- **Erref**: LAS-021/034
- **Iraupena**: 0:02:25. **Hasi**: 01:01:12. **Bukatu**: 01:03:37
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak
- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna
- Baserria » Baserriko bizimodua
- Itsasoa » Lehorreko lanak » Diru kontuak

Laburpena:
Goizean goiz ikuiluko lanak egiten zituzten. Ondoren, soroko lanez arduratzen ziren belarrak ondu, metak egin... Esnea Donostia saltzen zen. Ganadua saltzen zuten.

21. Etxean egiten zuten sagardoa

- **Erref**: LAS-021/036
- **Iraupena**: 0:02:45. **Hasi**: 01:07:19. **Bukatu**: 01:10:04
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak
- Baserria » Baserriko lanak » Sagardogintza

Laburpena:
Kanpora saltzen zuten sagarra eta sagardoa. Sagarra nahasten zuten sagardoa egiteko, eta egindako sagardoaren zati bat etxerako gordetzen zuten.

22. Sagardotegiei sagarra saltzen zieten

- **Erref**: LAS-021/037
- **Iraupena**: 0:04:32. **Hasi**: 01:10:04. **Bukatu**: 01:14:36
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Sagardogintza

Laburpena:
Sagardoa familian egiten zuten, baina sagardotegi handiak zituztenei sagarra saltzen zieten. Egurrezko upelak eta nola prestatu. Xixarra eta pitarra.

23. Sagardoa argindarrik gabe

- **Erref**: LAS-021/038
- **Iraupena**: 0:02:40. **Hasi**: 01:14:36. **Bukatu**: 01:17:16
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Sagardogintza

Laburpena:
Eskuz egiten zuten dena, tresnak ere desberdinak ziren orduan, argindarrik ez baitzuten. Auzolanean beti. Abere-hiltzea.

24. Urtero su berria

- **Erref**: LAS-021/039
- **Iraupena**: 0:02:02. **Hasi**: 01:17:16. **Bukatu**: 01:19:18
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua
- Baserria » Baserriko lanak » Lurra lantzea
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Ohiturak eta sinesmenak

Laburpena:
Urtean behin umeak bidaltzen zituzten soroa bedeinkatzeko apaizaren zain. Ateetan elorriaz egindako gurutzeak jartzen ziren. Su berria eta ur bedeinkatua urtero aldatzen zen.

25. Ura putzutik ateratzen zuten

- **Erref**: LAS-021/040
- **Iraupena**: 0:03:23. **Hasi**: 01:19:18. **Bukatu**: 01:22:41
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Argindarra eta ura

Laburpena:
Txomin jaio zenean ez zegoen ur depositorik herrian, lur azpitik hartzen zuten, putzuetatik.

26. Bakuan eskuz egiten ziren eragiketak

- **Erref**: LAS-021/042
- **Iraupena**: 0:01:28. **Hasi**: 01:25:24. **Bukatu**: 01:26:52
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Banketxeak

Laburpena:
Fotokopiagailurik ez zegoen Txomin bankuan lanean hasi zenean. Diru mugimendu guztiak eskuz idazten ziren liburuxketan.

27. Hiru aldiz bahitu zuten bankuko dirua kentzeko

- **Erref**: LAS-021/043
- **Iraupena**: 0:03:23. **Hasi**: 01:26:52. **Bukatu**: 01:30:15
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Banketxeak
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Gertaera izugarriak eta ezbeharrak

Laburpena:
Kutxako bulegoen artean ez zegoen ia komunikaziorik, eta Txominek dirua

batetik bestera eramaten zuen, bulego nagusitik sukurtsaletara. Ziztu bizian eramaten zuten dirua, segurtasunik ez baitzegoen. Hiru aldiz bahitu zuten Txomin bankuko dirua kentzeko. Katalunian harrapatu zituzten lapurrak.

28. Bankuan izandako lehenengo ordenagailua

- **Erref**: LAS-021/045
- **Iraupena**: 0:01:03. **Hasi**: 01:31:54. **Bukatu**: 01:32:57
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Teknologia berriak eta sare sozialak
- Lanbideak » Banketxeak

Laburpena:
Txomin bankuan lanean hasi zenena fotokopiagailurik ere ez zegoen. Denborarekin, eskuz egiten zen lan guztia ordenagailuz egiten hasi ziren.

29. Kanpotarrek tomate gordina jaten zuten

- **Erref**: LAS-021/047
- **Iraupena**: 0:03:35. **Hasi**: 01:33:52. **Bukatu**: 01:37:27
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Donostialdeko lantegiak
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Kanpoko jendearekin harremana
- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa

Laburpena:
Lasartera jende asko joan zen industriara lan egtera. Horrez gain, obretan ere egiten zuten lan. Tomate gordina jaten lehenengoak izan ziren, Txominen harridurarako. Michelin, Orbegozo, Abrasivas eta Luzuriagako langile ziren gehienak.

30. Jornalen dirua eramaten zuen bankutik fabriketara

- **Erref**: LAS-021/049
- **Iraupena**: 0:02:47. **Hasi**: 01:37:54. **Bukatu**: 01:40:41
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Banketxeak
- Itsasoa » Lehorreko lanak » Diru kontuak

Laburpena:
3500 langile izatera iritsi zen Michelin. Frantzia aldetik etorri zen, beste greba batzuen ondorioz. Lasarten 100 eguneko greba egon zen. Eskuz ordaintzen ziren jornalak, eta Txominek eramaten zuen dirua fabrikara.

31. Jornala gutun-azaletan

- **Erref**: LAS-021/050

- **Iraupena**: 0:01:11. **Hasi**: 01:40:41. **Bukatu**: 01:41:52
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Banketxeak
- Itsasoa » Lehorreko lanak » Diru kontuak

Laburpena:
Gutun-azaletan kobratzen zuen Txominek soldata, nominarik ez zuten.

32. Lanean, lapurren beldur

- **Erref**: LAS-021/052
- **Iraupena**: 0:01:21. **Hasi**: 01:42:04. **Bukatu**: 01:43:25
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Banketxeak

Laburpena:
Dirua batetik-bestera eramatearen ardurapean, lapurren beldur bizi zen Txomin. Ezkutuan joaten ziren batetik bestera, dirua ezkutatuta.

33. Ertzaintza eskolta moduan

- **Erref**: LAS-021/054
- **Iraupena**: 0:03:21. **Hasi**: 01:43:31. **Bukatu**: 01:46:52
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Banketxeak

Laburpena:
Prosegur greban jarri zen eta segurtasun zerbitzurik gabe gelditu ziren. Ertzaintza jarri zen eskolta gisa.

34. Guardia Zibilak bankuko dirua lapurtzeko proposamena

- **Erref**: LAS-021/056
- **Iraupena**: 0:02:55. **Hasi**: 01:47:10. **Bukatu**: 01:50:05
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Banketxeak
- Lanbideak » Polizia

Laburpena:
Eskolta moduan Guardia Zibila izan zuten batean, muga pasa eta diru guztia denen artean banatzeko proposamena egin zioten Txomini. Handik aurrera eskoltei ez zitzaien inongo informaziorik ematen. Langileen eta poliziaren arteko liskarrak greba egunetan.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2026-10-15

CC-by-sa | **Ahotsak.eus**
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com